LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

| 1. ORDENANTZA FISKALA, ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA | ORDENANZA FISCAL Nº 1 REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE CONSTRUCCIONES, INSTALACIONES Y OBRAS. |
|---|---|

| ARGIBIDEA | | INDICE |
|---|---|---|
| I - XEDAPEN OROKORRAK | 2 | I - DISPOSICIONES GENERALES |
| 1. Artikulua.- . | 3 | Artículo 1.- . |
| 2. Artikulua.- . | 4 | Artículo 2.- . |
| II - HECHO ZERGAGAIA | 5 | II - HECHO IMPONIBLE |
| 3. Artikulua.- . | 6 | Artículo 3.- . |
| III - SUBJEKTU PASIBOA | 7 | III - SUJETO PASIVO |
| 4. Artikulua.- . | 8 | Artículo 4.- . |
| IV- ZERGATZEKO OINARRIA | 9 | IV- BASE IMPONIBLE |
| 5. Artikulua.- . | 9 | Artículo 5.- . |
| V- TRIBUTUZKO KUOTA | 10 | V- CUOTA TRIBUTARIA |
| 6. Artikulua.- . | 10 | Artículo 6.- . |
| VI- SORTZAPENA | 11 | VI- DEVENGO |
| 7. Artikulua.- . | 11 | Artículo 7.- . |
| VII- KUDEATZEA | 12 | VII- GESTIÓN |
| 8. Artikulua.- . | 12 | Artículo 8.- . |
| 9. Artikulua.- . | 13 | Artículo 9.- . |
| 10. Artikulua.- . | 14 | Artículo 10.- . |
| 11. Artikulua.- . | 15 | Artículo 11.- . |
| 12. Artikulua.- . | 16 | Artículo 12.- . |
| 13. Artikulua.- . | 17 | Artículo 13.- . |
| 14. Artikulua.- . | 18 | Artículo 14.- . |
| 15. Artikulua.- . | 19 | Artículo 15.- . |
| 16. Artikulua.- . | 20 | Artículo 16.- . |
| 17. Artikulua.- Hobariak. | 21 | Artículo 17.- Bonificaciones. |
| AMAIERAKO XEDAPENA | 22 | AMAIERAKO XEDAPENA |

# 1. ORDENANTZA FISKALA, ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA

# ORDENANZA FISCAL Nº 1 REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE CONSTRUCCIONES, INSTALACIONES Y OBRAS.

## I - XEDAPEN OROKORRAK

## I - DISPOSICIONES GENERALES

**1. Artikulua.- .**

Udal honek, Lurralde Historiko honetako Tokiko Ogasunak arautzen dituen Foruzko Arauak eta tributuari dagokion Foruzko Arauak ezartzen dutenaren arabera, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zerga ezartzen eta galdatzen du honako Ordenantza honi jarraikiz.

**Artículo 1.- .**

Este Ayuntamiento, de acuerdo con lo previsto en la Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales del Territorio Histórico y la Norma Foral particular del tributo establece y exige del impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras con arreglo a la presente Ordenanza.

**2. Artikulua.- .**

Ordenantza hau udal-barruti osoan aplikatzen da.

**Artículo 2.- .**

La Ordenanza se aplica en todo el término municipal.

## II - HECHO ZERGAGAIA

## II - HECHO IMPONIBLE

**3. Artikulua.- .**

Zerga honen egitate zergakizuna edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea da, baldin eta hartarako beharrezkoa bada obretako edo hirigintzako lizentzia ateratzea, nahiz lizentzia hori eskuratu izan edo ez, edo erantzukizunezko deklarazioa edo aurretiazko komunikazioa aurkeztu beharra eskatzen bada, betiere lizentzia hori ematea edo kontroleko jarduera egitea Udal honi badagokio.

**Artículo 3.- .**

Constituye el hecho imponible de este impuesto la realización de cualquier construcción, instalación u obra para la que se exija obtención de la correspondiente licencia de obras o urbanísticas, se haya obtenido o no dicha licencia, o para la que se exija presentación de declaración responsable o comunicación previa siempre que la expedición de la licencia o la actividad de control corresponda a este Ayuntamiento.

**4. Artikulua.- .**

Zergari loturiko egitate zergakizunen kasuak, banan-banan adieraziz, ondoko hauek osatzen dituzte:

1. - Mota guztietako eraikin edo instalazio oin berrikoak eraikitzeko obrak.
2. - Lehendik dauden mota guztietako eraikin edo instalazioak handitzeko obrak.
3. - Aldatzeko edo eraberritzeko obrak, lehendik dauden mota guztietako eraikin eta instalazioen egiturari eragin diezaioketenak.
4. - Lehendik dauden mota guztietako eraikin eta instalazioen kanpoko itxura aldatzekoak.
5. - Eraikinen barneko antolamendua aldatzen duten obrak, haien erabilera edozein delarik ere.
6. - Behin-behineko izaeraz egin behar diren eta lurraren Legeko testu bateratuko 58. artikuluko 2. atalean azaltzen diren obrak.
7. - Zerbitzu publikoak instalatzeko obrak.

**Artículo 4.- .**

A título enunciativo, constituyen supuestos de hecho imponible sujetos al impuesto los siguientes:

1. - Las obras de construcción de edificaciones o instalaciones de todas clases de nueva planta.
2. - Las obras de ampliación de edificios o instalaciones de todas clases existentes.
3. - Las de modificación o reforma que afecten a la estructura de los edificios e instalaciones de todas clases existentes.
4. - Las de modificación del aspecto exterior de los edificios e instalaciones de todas clases existentes.
5. - Las de obras que modifiquen la disposición interior de los edificios, cualquiera que sea su uso.
6. - Las obras que hayan de realizarse con carácter provisional a que se refiere el apartado 2 del art. 58 del texto refundido de la Ley del Suelo.
7. - Las obras de instalación de servicios públicos.

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

8. - Lur-erauzteak, lautzeak, hondeatzeak, lurreztatzeak eta gisako lur-higitzeak, non eta ez dauden egin beharreko obratzat zehaztuak eta programatuak Urbanizatzeko edo Eraikitzeko Proiektu onetsi edo baimendunen batean.

8. - Los movimientos de tierra, tales como desmontes, explanaciones excavación y terraplenado, salvo que tales actos estén detallados y programados como obras a ejecutar en un Proyecto de Urbanización o de Edificación aprobado o autorizado.

9. - Eraikuntzen eraistea, salbu eta hondatzeko zorian daudela deklaratutakoetan.

9. - La demolición de las construcciones, salvo en las declaradas de ruina inminente.

10.- Lurpeko instalazioak zeinen erabilera bideratuko baita aparkalekuetara, industriako, merkataritzako edo lanbideko jardueretara, zerbitzu publikoetara edo lurrazpiari ematen zaion beste edozein erabileratara.

10.- Las instalaciones subterráneas dedicadas a aparcamiento, actividades industriales, mercantiles o profesionales, servicios públicos o cualquier otro uso a que se destine el subsuelo.

11.- Bide publikotik ikusteko moduko kartel propagandakoak ipintzea.

11.- La colocación de carteles de propaganda visibles desde la vía pública.

12.- Edozein obra, eraikuntza edo instalazio zeinek inplikatzen baitu inbertitzea gaitasun ekonomikoa erakusten duten baliabide ekonomikoak, obrako edo hirigintzako lizentziari lotuak.

12.- Cualesquiera obras, construcciones, o instalaciones que impliquen inversión de recursos económicos demostrativos de una capacidad económica y sujetos a licencia de obras o urbanísticas.

**5. Artikulua.- .**

ART

**Artículo 5.- .**

1. - Ez dira zerga honi lotuak egongo Udalaren jauntzapeko ondasun higiezinetan egindako eraikuntzak, obrak edo instalazioak, baldin eta Udala bada obraren jabea.

Zerga honi dagozkion ondorioetarako, baldin eta administrazioko eraukitzak berekin badarama obra gauzatzea, ulertuko da eraukitzaren hartzailea obraren jabea dela.

2. - Zerga ordaintzetik salbuetsi egiten dira Estatuaren, Erkidego Autonomoen, Lurralde Historikoen edo Tokiko Erakundeen jabetzapekoa den edozein eraikuntza, instalazio edo obra gauzatzea baldin eta, zerga horren subjektu izanik, zuzenean errepideak, trenbideak, portuak, aireportuak, obra hidraulikoak edo herrien eta haien hondakin-uren saneamendua egitera xedatuko badira, nahiz eta haien kudeaketa Organismo Autonomoek gauzatu, hala inbertsio berriko obrak badira nola kontserbatzekoak badira.

Orobat salbuesten dira zerga ordaintzetik berreraikitzezko obrak, baldin suteetan, uholdeetan edo beste edozein hondamenditan izandako kalteen ondorio zuzenak badira.

1. - No estarán sujetas a este impuesto las construcciones, obras o instalaciones ejecutadas sobre inmuebles cuya titularidad dominical corresponda a este Ayuntamiento, siempre que ostente la condición de dueño de la obra.

A efectos de este impuesto, en los supuestos de concesión administrativa que lleve aparejada la realización de obra, se entenderá que ostenta la condición de dueño de la obra el concesionario.

2. - Se exime del pago del Impuesto la realización de cualquier construcción, instalación u obra de la que sean dueños el Estado, las Comunidades Autónomas, los Territorios Históricos o las Entidades Locales, que estando sujetas al mismo, vayan a ser directamente destinadas a carreteras, ferrocarriles, puertos, aeropuertos, obras hidráulicas, saneamiento de poblaciones y de sus aguas residuales, aunque su gestión se lleve a cabo por Organismos Autónomos, tanto si se trata de obras de inversión nueva como de conservación.

Igualmente se exime del pago del impuesto las obras de reconstrucción como consecuencia directa de daños por incendio, inundación o cualquier otro de tipo catastrófico.

## *III - SUBJEKTU PASIBOA*

TI

## *III - SUJETO PASIVO*

**6. Artikulua.- .**

ART

**Artículo 6.- .**

1.- Zerga honen subjektu pasiboak, zergadun gisa, Zergen Foru Arau Orokorrak 35. artikuluko 3. atalean aipatzen dituen pertsona fisikoak, pertsona juridikoak eta entitateak dira, betiere eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren jabe badira, nahiz izan edo ez horiek egiten diren eraikinaren jabeak.

1.- Son sujetos pasivos de este impuesto, a título de contribuyentes, las personas físicas, personas jurídicas o entidades a que se refiere el apartado 3 del artículo 35 de la Norma Foral General Tributaria, que sean dueños de la construcción, instalación u obra, sean o no propietarios del inmueble sobre el que se realice aquélla.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako ondorioetarako, lanek sortarazten dituzten gastuak edo kostua jasaten dituena joko da eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren jabetzat.

A los efectos previstos en el párrafo anterior, tendrá la consideración de dueño de la construcción, instalación u obra quien soporte los gastos o el coste que comporte su realización.

2. - Udaleko Tributuen Administrazioaren aurrean seinesgarriro frogatzen ez bada obraren jabetza obra egiten deneko ondasun higiezinaren jabeaz beste pertsona edo erakunde bati dagokiola, ulertuko da arduraduna ondasun higiezinaren jabea dela.

2. - Salvo que se acredite fehacientemente ante la Administración tributaria municipal que la condición de dueño de la obra recae en persona o entidad distinta del propietario del inmueble sobre el que aquella se realice, se presumirá que es este último quien ostenta tal condición.

**7. Artikulua.- .**

**Artículo 7.- .**

1.- Eraikuntza, instalazioa edo obra subjektu pasibo zergadunak egiten ez duenean, zergadunaren ordezko subjektu pasibotzat hartuko dira lizentziak eskatzen dituztenak edo erantzukizunezko deklarazioak edo aurretiazko komunikazioak aurkezten dituztenak edo eraikuntzak, instalazioak edo obrak egiten dituztenak.

1.- En el supuesto de que la construcción, instalación u obra no sea realizada por el sujeto pasivo contribuyente tendrán la condición de sujetos pasivos sustitutos del contribuyente quienes soliciten las correspondientes licencias o presenten las correspondientes declaraciones responsables o comunicaciones previas o quienes realicen las construcciones, instalaciones u obras.

Ordaindutako zerga-kuotaren zenbatekoa exiji diezaioke ordezkoak zergadunari.

El sustituto podrá exigir del contribuyente el importe de la cuota tributaria satisfecha.

2. - Edozein kasutan ere, Udaleko Administrazioak zergapekoaren izatea duen pertsonaren edo erakundearen identitatea eta helbidea galdatzen ahalko dizkio zergapekoaren ordezkoari.

2. - En todo caso, la Administración Municipal podrá exigir al sustituto del contribuyente la identidad y dirección de la persona o entidad que ostente la condición de contribuyente.

## *IV- ZERGATZEKO OINARRIA*

## *IV- BASE IMPONIBLE*

**8. Artikulua.- .**

**Artículo 8.- .**

Zergaren kargatzeko oinarria da gauzatutako eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren kostu benetakoa eta diruzkoa, zeinetan ez baitira sartzen Balio Erantsiaren Zerga eta gisa horretako gainerako zergak, errejimen bereziei baitagozkie, ezta ere tasak, prezio publikoak eta gainerako prestazio ondarezkoak, izaera publikoa eta tokikoa dutenak eta eraikuntza, instalazio edo obra horiekin zerikusia dutenak.

La base imponible del impuesto está constituida por el coste real y efectivo de la construcción, instalación u obra realizada, del que no forman parte el Impuesto sobre el Valor Añadido y demás impuestos análogos propios de regímenes especiales, ni tampoco las tasas, precios públicos y demás prestaciones patrimoniales de carácter público local relacionadas con dichas construcciones, instalaciones u obras.

## *V- TRIBUTUZKO KUOTA*

## *V- CUOTA TRIBUTARIA*

**9. Artikulua.- .**

**Artículo 9.- .**

Zerga honen kuota izango da zergatzeko oinarriari %5,00(e)ko karga-tasa aplikatzetik ateratzen dena.

La cuota de este impuesto será el resultado de aplicar a la base imponible el tipo de gravamen del 5,00%.

## *VI- SORTZAPENA*

## *VI- DEVENGO*

**10. Artikulua.- .**

Zerga kobragai bilakatuko da eraikuntza, instalazioa edo obra hasteko unean bertan, dagokion lizentzia artean jaso ez badu ere.

**Artículo 10.- .**

El impuesto se devengará en el momento de iniciarse la construcción, instalación y obra, aún cuando no se haya obtenido la correspondiente licencia.

## *VII- KUDEATZEA*

## *VII- GESTIÓN*

**11. Artikulua.- .**

1. - Arauzko lizentzia ematen bada edo erantzukizunezko deklarazioa nahiz aurretiazko komunikazioa aurkezten bada, edo, lizentzia oraindik eskatu, eman edo ukatu gabe egonik edo delarazioa nahiz komunikazioa oraindik ez aurkezturik, eraikuntza, instalazio edo obra hasten bada, konturako behin-behineko likidazio bat egingo da, oinarri ezargarria honela kalkulatuta:

a) Hasiera batean, dihoakienek aurkeztutako aurrekontuaren arabera, zeina onikusi beharko baitu dagokion Elkargo Ofizialak, hori nahitaezko baldintza denean.

b) Baldin aurrekonturik aurkezten ez badute, edo baldin aurkezturiko aurrekontua kalkulatzeko oinarritzat hartutako prezioak merkatuan ohikoak diren prezioetatik oso desberdinak badira, hala nola egindako eraikuntzetarako, instalazioetarako eta obretarako behar den lizentzia eskatu edo eskuratu ez dutenean, zerga-oinarria udaleko teknikariek ezarriko dute, eta horretarako erreferentziatzat hartuko dute Euskadiko Erkidego Autonomoko Eraikitzeko eta Urbanizatzeko prezioen oinarria, Eusko Jaurlaritzako Hirigintza, Etxebizitzak eta Ingurugiroa Sailak argitaratua.

2. - Baldin eraikuntza, instalazioa edo obra behar den udaleko lizentziarik gabe edo erantzukizunezko deklarazioa nahiz aurretiazko komunikazioa aurkeztu gabe hasi badute, eta baldin subjektu pasiboari aginduzko lizentziaren tramitazioa egin behar duela jakinerazten zaionetik hogeita hamar egun igaro badira, ofizioz behin-behineko likidazioa egiteko prozedura has daiteke, noiz eta adierazitako epean konponbideratzen ez duen ez-betetze hori edo obligazioaren ez-izatea behar bezala justifikatzen ez duen.

3. - Ofiziozko behin-behineko likidazioa, Zergaren Administrazioak eskueran dituen eta eragin horretarako garrantzitsu diren datu, aurrekari, elementu, zeinu, indize eta moduloetan oinarrituz egingo du.

4. - Tarteko den subjektuari espedientearen berri emango zaio, egoki deritzen alegazioak egin ditzan 10 eguneko epe ezin luzatuzkoan.

**Artículo 11.- .**

1. -Cuando se conceda la licencia preceptiva o se presente la declaración responsable o la comunicación previa, o cuando no habiéndose solicitado, concedido o denegado aún aquella o presentado éstas, se inicie la construcción, instalación u obra, se practicará una liquidación provisional a cuenta, determinándose la base imponible:

a) En principio en función del presupuesto presentado por los interesados, debiendo estar éste visado por el Colegio Oficial correspondiente cuando ello constituya un requisito preceptivo.

b) En el supuesto de no-presentación de presupuesto o en el caso que dicho presupuesto se encuentre calculado sobre la base de unos precios que difieran sustancialmente de los que imperan en el mercado, así como cuando se realicen construcciones, instalaciones y obras, para las que no se haya solicitado u obtenido la preceptiva licencia, la base imponible será determinada por los técnicos municipales tomando como referencia la Base de Precios de Edificación y Urbanización de la Comunidad Autónoma del País Vasco, publicada por el Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente del Gobierno Vasco.

2. - De haberse iniciado la construcción, instalación u obra sin la respectiva licencia municipal o sin presentar la declaración responsable o la comunicación previa, y transcurridos treinta días naturales desde la notificación al sujeto pasivo para que efectúe la tramitación de la licencia perceptiva, podrá iniciarse el procedimiento para la práctica de la liquidación provisional de oficio, salvo que en el indicado plazo se subsane el incumplimiento o se justifique debidamente la inexistencia de la obligación.

3. - La liquidación provisional de oficio se realizará sobre la base de los datos, antecedentes, elementos, signos, índices o módulos de que disponga la Administración tributaria y que sean relevantes al efecto.

4. - El expediente se pondrá de manifiesto al sujeto afectado para que, en el plazo improrrogable de 10 días naturales, efectúe las alegaciones que tenga por conveniente.

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

5. - Subjektu pasiboaren alegazioak jaso ondoren, edo izapide horren epea bete ondoren, behin-behineko likidazioa egingo zaio ofizioz.

6. - Ebazpena espedienteari gaineratuko zaio, eta doakienei jakietera emango zaie haren datatik zenbatzen hasi eta 10 eguneko epean.

7. - Ofiziozko likidazio behin-behinekoak berehalakoan izango dira bete beharrekoak. Nolanahi ere, hori ez da eragozpen izango haien aurka erreklamazioak jartzeko, legeak ezarritakoaren arabera.

8. - Artikulu honetan xedaturikoarentzat eragozpen izan gabe, Administrazioak subjektu pasiboen egoera zergazkoa egiaztatzen ahalko du geroago, Tributuen Foru-Arau Orokorreko 120. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoaren arabera behin betiko likidazioak eginez.

**12. Artikulua.- .**

Baldin hasierako proiektua aldatzen badu dagokion lizentzia ematen zaionetik gerora edo erantzukizunezko deklarazioa zein aurretiazko komunikazioa aurkeztu eta gero, aurrekontu berri bat aurkeztu beharko du, behin-behineko likidazio berri bat egiteko hasierako aurrekontua zenbat garestitzen den arabera.

**13. Artikulua.- .**

1. - Benetan gauzaturiko eraikuntzak, instalazioak edo obrak, eta haien kostu diruzkoa eta egiazkoa ikusitakoan, Udaleko Administrazioak, administrazioko egiaztatze bidezkoa eginda, hala balegokio, oinarri zergagaia aldatu egingo du, dagokion likidazio behin betikoa egingo du, eta subjektu pasiboari dagokion zenbatekoa galdatuko edo, hala badagokio, itzuliko dio.

2. - Aurreko atalean ezarritakoaren ondorioetarako, obra amaitzen denean, behin-behineko izaeraz eskuratzen denean, edo lehen aldiz okupatzen denean, 30 eguneko epean aurkeztuko du Udaletxeko Sarrerako Errejistroan obraren zuzendari teknikoaren ziurtagiria, dagokion elkargo profesionalak onikusia, zeinaren bidez ziurtatuko baita obren kostu osoa; edo, obra txikien kasuan, egindako obra osoaren kostuaren faktura aurkeztuko du.

5. - Se practicará la liquidación provisional de oficio con posterioridad a la recepción de las alegaciones del sujeto pasivo o de la caducidad de dicho trámite.

6. - La resolución será incorporada al expediente y se notificará a los interesados en el plazo de 10 días a contar desde su fecha.

7. - Las liquidaciones provisionales de oficio serán inmediatamente ejecutivas, sin perjuicio de las correspondientes reclamaciones que puedan interponerse contra ellas de acuerdo con lo establecido por las leyes.

8. - Sin perjuicio de lo dispuesto en este artículo, la Administración podrá efectuar ulteriormente la comprobación de la situación tributaria de los sujetos pasivos, practicando las liquidaciones definitivas que procedan con arreglo a lo dispuesto en los artículos 120 y siguientes de la Norma Foral General Tributaria.

ART

**Artículo 12.- .**

Si concedida la correspondiente licencia o presentada la declaración responsable o la comunicación previa se modificara el proyecto inicial, deberá presentarse un nuevo presupuesto a los efectos de practicar una nueva liquidación provisional a tenor del presupuesto modificado en la cuantía que exceda del primitivo.

ART

**Artículo 13.- .**

1. - A la vista de las construcciones, instalaciones u obras efectivamente realizadas y del coste real y efectivo de las mismas, la Administración Municipal, mediante la oportuna comprobación administrativa modificará, en su caso, la base imponible, practicando la correspondiente liquidación definitiva y exigiendo del sujeto pasivo o reintegrándole, en su caso, la cantidad que corresponda.

2. - A efectos de lo dispuesto en el apartado anterior, a la terminación de la obra, recepción provisional o primera ocupación, en el plazo de 30 días, se presentará en el Registro de Entrada del Ayuntamiento Certificación del Director facultativo de la obra, visada por el colegio profesional correspondiente, por la que se certifique el costo total de las obras, o en el caso de obras menores factura del coste total de las obras ejecutadas.

3. - Baldin eta Obren Amaierako Ziurtagiriak, dagokion Elkargo Ofizialak onikusirik, edo aurkezturiko fakturek jasotzen ez badute benetan gauzaturikoren guztizkoa, edo kalkulatzeko oinarritzat erabili diren prezioek merkatuan ohikoak diren prezioetatik oso alde handia badute, edo lizentzian ezarritako epean aurkezten ez badu obren likidazio behin betikoa, udaleko teknikariek egingo dute, erreferentziatzat hartuz Euskadiko Erkidego Autonomoko Eraikitzeko eta Urbanizatzeko Prezioen Oinarria, Eusko Jaurlaritzako Hirigintza, Etxebizitzak eta Ingurugiroa Sailak argitaratua.

3. - En el caso de que el Certificado Final de Obras, visado por el Colegio Oficial correspondiente o las facturas presentadas no contemplen el total de lo realmente ejecutado o se haya calculado sobre la base de unos precios que difieran sustancialmente de los precios del mercado o no se presente en el plazo estipulado en la licencia, la liquidación definitiva de las obras, se efectuará por los técnicos municipales tomando como referencia la Base de Precios de Edificación y Urbanización de la Comunidad Autónoma del País Vasco, publicada por el Departamento de Urbanismo, Vivienda y Medio Ambiente del Gobierno Vasco.

**14. Artikulua.- .**

Zerga likidatzeaz den bezainbatean, lizentzia Administrazioaren isiltasun positiboa aplikatuz emateak, lizentzia espresuki emateak bezainbesteko balioa izango du.

**Artículo 14.- .**

A efectos de la liquidación del impuesto, las licencias otorgadas por aplicación del silencio administrativo positivo tendrá el mismo efecto que el otorgamiento expreso de licencias.

**15. Artikulua.- .**

Ordenantza honek arautzen duen Zerga hau likidatzeaz, kobratzeaz eta ikuskatzeaz denaz bezainbatean, hala nola zerga-arauen urratzeak kalifikatzeari eta kasu bakoitzean ezarri beharreko zigorrak zehazteari dagokionez, Tributuen Foru-Arau Orokorrean ezarritakoa izango da aplikakizun.

**Artículo 15.- .**

En todo lo relativo a la liquidación, recaudación e inspección de este Impuesto regulado en esta Ordenanza, así como la calificación de las infracciones tributarias y determinación de las sanciones que correspondan en cada caso, será de aplicación lo previsto en la Norma Foral General Tributaria.

**16. Artikulua.- .**

Baldin lizentziaren titularrak, edo erantzukizunezko deklarazioa zein aurretiazko komunikazioa aurkeztu duenak, idatziz adierazitako uko-egite espresuaren bidez, obra, eraikuntza edo instalazio baimendunak ez gauzatzea erabakitzen badu, edo lizentziaren balioa iraungi bada eta Udalak hura berritzeko baimenik eman ez badio, eginiko behin-behineko likidazioa itzuli edo erabat deuseztatu egingo dio.

**Artículo 16.- .**

Si el titular de una licencia o quien presente la declaración responsable o la comunicación previa desistiera de realizar las obras, construcciones o instalaciones autorizadas, mediante renuncia expresa formulada por escrito, o bien ésta haya caducado y el Ayuntamiento no haya autorizado su renovación, se procederá al reintegro o anulación total de la liquidación provisional practicada.

**17. Artikulua.- Hobariak.**

1. - Noiz ere obren jabeek eskuratuak baitituzte dagozkien lizentziak edo aurkeztua baitute erantzukizunezko deklarazioa nahiz aurretiazko komunikazioa, behar bezala tramitatuak, Udalak aldez aurretik inolako errekerimendurik egin behar izan ez dielarik eta zergatzeko oinarria udaleko teknikariek kalkulatu edo aldatu behar izan ez dutelarik, ateratzen zaion kuotak ondoko hobari hauek izango ditu:

1.1. %90(e)koa, ondoko kasu hauen artean dauden eraikuntza, instalazio eta obra guztientzat:

a) Udalerrirako interes edo onura bereziko deklaratuak izan direnak zeren haietan batera gertatzen baitira zertzelada sozialak, kulturazkoak, antzinako artezkoak, edo enplegua sustatzekoak, deklaratze hori justifikatzen dutenak.

**Artículo 17.- Bonificaciones.**

1. - Siempre que los dueños de las obras se hallen provistos de las correspondientes licencias o hayan presentado la declaración responsable o la comunicación previa, debidamente tramitadas, sin que hubiera existido requerimiento previo alguno por parte del Ayuntamiento y sin que la base imponible haya tenido que ser calculada o modificada por los servicios técnicos municipales, la Cuota resultante, gozará de las siguientes bonificaciones:

1.1. El 90% para aquellas, construcciones, instalaciones y obras, que se incluyan dentro de los siguientes casos:

a) Que hayan sido declaradas de especial interés o utilidad municipal por concurrir circunstancias sociales, culturales, histórico artísticas o de fomento de empleo que justifiquen tal declaración.

b) Zaharberritze babestukoak direnak, baldin eta diruzko laguntzaren bat (mailegua edo diru-emaitza) eraukitzen badie Eusko Jaurlaritzak. Hobariaren onura izatekotz, Udalari aurkeztutako aurrekontuaren eta Eusko Jaurlaritzari aurkeztutako fakturen arteko aldea ezingo da %20tik gorakoa izan. Era berean, Udalari eta Eusko Jaurlaritzari deklaratutako gremioek berberak izan beharko dute.

c) Traba arkitektonikoak kentzekoak, betiere eraikuntzak, instalazioak edo obrak egiten diren eraikineko egoiliarren batek 70 urte baino gehiago baditu edo minusbaliotasuna kalifikatzeko ebazpena aportatzen badu, zeinetan, minusbaliotasunaren gradua finkatzeaz gain, hurrengo baremo hauetako edozein akreditatu beharko baitu:

- Hirugarren pertsonen beharra determinatzeko baremoa. Zailtasun hori existitzen dela kontsideratuko da baldin eta onuradun ustekoa baremoko A) atalean (Desplazamendua) sartua badago, gutxienez 2 puntu lortzen dituenean.
- Pertsona minusbaliatuari garraio publiko kolektiboak erabiltzea eragozten dion mobilitateko zailtasunik existitzen ote den determinatzeko baremoa. Zailtasun hori existitzen dela kontsideratuko da baldin eta onuradun ustekoa baremoko A) (Aulkiak), B) (Bastoiak) edo C) (Jokabidea) ataletan deskribaturiko egoeretakoren batean sartua aurkitzen bada, edo, ez egonda ere, gutxienez 7 puntu lortzen dituenean aipaturiko baremo horretako gainerako ataletan jasoriko egoeretakoren batean aurkitzen delako.

Hobariak aurrekontuan traba arkitektoniko horiek kentzera xedaturiko partea bakarrik hartuko du.

Atal honetan adierazitakoaren ondorioetarako, eraikineko egoiliartzat joko da bertan erroldatua dagoen edozein pertsona.

d) Herritarren Intereseko elkarteek egindakoak.

e) Elkarte publikoek industrian erabiltzeko egindakoak.

f) Baserriak eta datxezkien instalazioak eraberritzekoak, nekazaritzako, basoko edo abeltzaintzako ustiatze egiazko bat gertatzen den kasuetan.

g) Antzinako artezko monumentu horrela katalogatuetan egindako jarduteak.

b) Las que sean de rehabilitación protegida, siempre y cuando se conceda alguna ayuda económica (préstamo y/o subvención) por parte del Gobierno Vasco. Para disfrutar de la bonificación, la diferencia entre el presupuesto presentado en el Ayuntamiento y las facturas presentadas en el Gobierno Vasco no podrá exceder del 20%. Asimismo, las obras y gremios declarados en el Ayuntamiento y en el Gobierno Vasco habrán de ser los mismos.

c) La de eliminación de barreras arquitectónicas, siempre y cuando algún residente del inmueble sobre el que se realicen las construcciones, instalaciones u obras, sea una persona mayor de 70 años o aporte resolución de calificación de minusvalía, donde además de fijarse el grado de minusvalía, deberá acreditar cualquiera de los siguientes baremos:

- Baremo para determinar la necesidad de la asistencia de terceras personas. Se considerará la existencia de tal dificultad siempre que el presunto beneficiario se encuentre incluido en el apartado A) (Desplazamiento) del baremo, cuando obtenga un mínimo de 2 puntos.
- Baremo para determinar la existencia de dificultades de movilidad que impidan la utilización de transportes públicos colectivos de la persona minusválida. Se considerará la existencia de tal dificultad siempre que el presunto beneficiario se encuentre incluido en alguna de las situaciones descritas en los apartados A) (Sillas), B) (Bastones) o C) (Conducta) del baremo o, aun no estándolo, cuando obtenga un mínimo de 7 puntos por encontrarse en alguna de las situaciones recogidas en los restantes apartados del citado baremo.

La bonificación alcanzará solamente a la parte del presupuesto destinada a la supresión de las citadas barreras arquitectónicas.

A los efectos de lo señalado en este apartado se entenderá por residente del inmueble a toda aquella persona que se encuentre empadronada en el mismo

d) Las realizadas por sociedades de Interés Público

e) Las realizadas por sociedades Públicas para usos industriales.

f) Las de reformas de Caseríos e instalaciones anejas, en los casos en que exista una efectiva explotación agrícola, forestal o ganadera.

g) Las actuaciones en monumentos histórico-artísticos, así catalogados

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

h) Enpresak birkokatzearekin edo berregituratzearekin zerikusia duten eraikuntzak, instalazioak edo obrak zeinek 5 lanpostu berri baino gehiago sortzen duten eta zeinen inbertsioa 900 mila eurotik gorakoa den. Taulako enplegatu finkoen kopurua gehi 5 sortuak, gutxienez ere, 5 urtean segidan mantendu beharko dira. Orobat noiz eta, enpresa berritik eratua ez bada, azken 2 urtean taulako lanpostu finkoen kopuruari eutsi behar izan badio. Baldintza horietakoren bat bete ezean, eskuratutako hobaria ostera itzultzera obligatua geldituko da.

h) Las construcciones, instalaciones u obras relacionadas con la reubicación o reestructuración de empresas que generen más de 5 nuevos puestos de trabajo de carácter fijo y cuya inversión supere los 900 mil euros. El numero de empleados fijos de plantilla más los 5 generados deberán mantenerse como mínimo durante 5 años consecutivos. Asimismo siempre y cuando la empresa no sea de nueva constitución, ésta durante los últimos 2 años ha tenido que mantener el numero de puestos fijos de plantilla. En caso de no cumplirse cualquiera de estas condiciones se estará obligado a devolver la bonificación obtenida.

1.2. %50(e)koa, ondoko kasu hauen artean dauden eraikuntza, instalazio eta obra guztientzat:

1.2. El 50% para aquellas, construcciones, instalaciones y obras, que se incluyan dentro de los siguientes casos:

a) Eraikinen estalkiak eta fatxadak hobetzeko obrak.

a) Las obras de mejora de cubiertas y fachadas de edificios.

b) Ostalaritzako lokalak dagozkien araudietara egokitzeko obrak, baldin eta obraren xedeko lokalean jardueraren eskualdatzerik gertatu ez bada azken 5 urtean.

b) Las obras de adecuación de los establecimientos de hostelería a la reglamentación correspondiente, siempre que en el local objeto de la obra no se haya producido una transmisión de la actividad en los últimos 5 años.

c) Eraikuntzak, instalazioak edo obrak egitea erakinetan non ere garatuko diren ekonomiako jarduerak zeinak sartzen baitira enplegua sustatzeko eta industria bultzatzeko programetan, eta jaso baitituzte Europako Batasunetik datozen diru-laguntzak, edota adiministrazio, erakude edo elkarte publikoetatik datozenak. Hobari hau eskuratzeko, egiaztatu beharko du aipatutako programa horien onuradun dela.

c) Las construcciones, instalaciones u obras en edificaciones en los que se vayan a desarrollar actividades económicas acogidas a los programas de fomento de empleo y promoción industrial beneficiarias de ayudas económicas procedentes de la U.E. , o de las diversas administraciones, organismos o sociedades públicas. Para la obtención de esta bonificación deberá acreditarse la condición de beneficiario de los citados programas.

d) Ingurugiroa hobetzen laguntzen duten jarduteak, baldin eta diru-laguntzaren bat ematen badu Eusko Jaurlaritzak edo Diputazio Foralak. Hobaria eskuratzeko, Udalari aurkeztutako aurrekontuaren eta gainerako erakundeei aurkeztutako fakturen arteko aldeak ezingo du %20tik gorakoa izan. Halaber, deklaraturiko obrek eta gremioek berberak izan beharko dute.

d) Las actuaciones que contribuyan a la mejora del medio ambiente, siempre y cuando se conceda alguna ayuda económica por parte del Gobierno Vasco o Diputación Foral. Para disfrutar de la bonificación, la diferencia entre el presupuesto presentado en el Ayuntamiento y las facturas presentadas en los otros organismos no podrá exceder del 20%. Asimismo, las obras y gremios declarados habrán de ser los mismos.

e) Babes ofizialeko etxebizitzak, lokalak eta garajeak eraikitzekoak.

e) Las construcciones de Viviendas, locales y garajes de Protección Oficial.

2. - Hobari horiek eskuratzeko, ezinbesteko baldintza izango da Udaleko Ogasun honekin zordun ez izatea, tokiko baliabideak osatzen dituzten kontzeptuetarik ezeinetan.

2. - Será condición inexcusable para poder obtener dichas bonificaciones no ser deudor(a) de esta Hacienda Municipal por ninguno de los conceptos que integran sus recursos locales

3. - Hobari bat eskuratzeko interesaturik dauden pertsonek Udaletxean aurkeztuko dute horretarako egin behar den eskabidea, non xehekiro zehaztuko baitute haren izaera, hedadura eta irismena.

3. - Las personas interesadas en la obtención de una bonificación presentarán en el Ayuntamiento la oportuna solicitud, con especificación detallada de la naturaleza, extensión y alcance de la misma.

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

Obretako lizentzien eskaitzaileak edo erantzukizunezko deklarazioa zein aurretiazko komunikazioa aurkezten duenak zor guztiaren zenbatekoa sartuko du, eta eraukitzen zaion hobaria itzuliko zaio dagokion deklarazioa lortzen duenean bai udal-batzarretik bai dagokion organotik.

El solicitante de las licencias de obras o quien presente la declaración responsable o la comunicación previa ingresará la deuda total, siéndole devuelta la bonificación concedida una vez haya obtenido la declaración respectiva, bien por el Pleno o el órgano correspondiente.

4. - 1. atalean aipatzen den deklarazioa Alkateak egingo du, behin subjektu pasiboak eskabidea egindakoan, 1.a) atalekoa izan ezik, hura Udalbatzarrak egingo baitu.

4. - La declaración a la que hace referencia el apartado 1 la realizará el(a) Alcalde(sa) previa solicitud del sujeto pasivo, excepto para apartado 1.a) que la realizará el Pleno.

## AMAIERAKO XEDAPENA

DF

## DISPOSICIÓN FINAL

Zerga hau, behin betiko balioz, 1989(e)ko urriaren 4(e)an ezarri zen eta eskagai jarri. Ordenantza hau behin betiko izaeraz onetsi zuen Udalbatzarrak 1999(e)ko urriaren 22(e)an egindako osoko bilkuran, 2000(e)ko urtarrilaren 1etik aurrera sartu zen indarrean, eta bere azken aldaketa 2014(e)ko azaroaren 4(e)an onetsi zen, 2015(e)ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean eta horrela segituko du harik eta aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

El presente impuesto se estableció y exigió definitivamente el día 4 de octubre de 1989. La presente Ordenanza quedó aprobada definitivamente por el Pleno de la Corporación celebrado el día 22 de octubre de 1999, entró en vigor el 1 de enero de 2000, y su última modificación aprobada el 4 de noviembre de 2014 entrará en vigor el 1 de enero de 2015 y así seguirá hasta que se acuerde su modificación o derogación.

Ordenantza honek jasotzen dituen xedapenen artean, badira beste administrazio publiko batzuek beren eskumenak gauzatuz onetsitakoak, eta zuzenean eta nahitaez aplikatu beharrekoak. Beraz, alderdi horien gainean onesten diren arau-aldaketak (batik bat zenbatekoei eta koefizienteei dagozkienak) automatikoki jasoko dira, eta berariaz onesteko erabakia hartu beharrik gabe eguneratuko dira Ordenantza honetan.

La presente Ordenanza recoge disposiciones aprobadas por otras Administraciones Públicas en el ejercicio de sus competencias y que resultan de aplicación directa y obligatoria, por tanto, las modificaciones normativas que se aprueben sobre dichos aspectos (especialmente importes y coeficientes) serán recogidas automáticamente, actualizando esta Ordenanza sin necesidad de adoptar acuerdo aprobatorio específico.

KONTUHARTZAILEAK ALKATEAK IDAZKARIAK